



**Arartekoaren Ebazpena, 2009ko abenduaren 28koa, “Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. Batez ere musulman komunitateari.” gomendio orokorrari egindako jarraipenari buruzkoa.**

### Aurrekariak

1. Aurreko ekitaldian, gomendio orokorra prestatu genuen *“Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. batez ere musulman komunitateari”* zegokionez. Hilotzen segurtasunaren alorrean indarrean zen araudia, erritu musulmanaren arabeko ehorzketak nahiz administrazio publikoek —autonomia erkidegoak, foru aldundiek eta udalek— dituzten eskumenak aztertu eta gero, honako hau **gomendatu** genuen ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)/gomendio orokorrak 2008):

*“Azaldutako gogoetak ikusirik, uste dugu administrazio publikoek, araudian eragina duten beren berezko eskumen esparruetan, sustapenean, plangintzan edota hilerrien zerbitzu publikoaren prestazioan, irekita egon behar dutela eta musulman taldearen gero eta eskaera handiagoari erantzun behar diotela, eta dagozkion neurriak hartu behar dituztela lurperatzeak musulman errituraren arabera egiteko.”*

2. Aipatutako gomendio orokorra 2008ko Eusko Legebiltzarrarentzako txostenean gehitu genuen, eta ofiziozko jarduna abiarazi genuen, hainbat administrazio publiko eta erakunderi zegokienez, haien iritzia eta aurreikuspenak jasotze aldera, testuan jasotako alderdietako batzuk haien jardun eremukoak izan zitezkeen eta.

Zehazki, honako hauei eskatu genien informazioa: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazioko Zuzendaritzari, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, eta Osasun Sailari, Eusko Jaurlaritzakoei zegokienez; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiei; Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalei, eta EUDEL-i.

3. Eusko Jaurlaritzatik, Osasun Sailak baino ez digu erantzun, eta, laburbilduz ondorengoa adierazi zuen:
  - Urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitatearen Arautegia onartzen duena) xedea da osasun publikoa bermatzea, hilen edo haien familien erlijiozko sinesmenak kontuan izan gabe.
  - Osasun Publikoko Zuzendaritzaren iritzia da ez dagoela eragozpenik hilerriak erlijio sinesmen bati edo besteri egokitzeko, baldin betetzen badira jarduera





horiek arautzen dituen osasun arloko araudiak osasun publikoa babestearren ezarritako baldintzak.

- Bilboko Udal Hilerria aldatzeko baimena aipatu zuten, lurrean zulatutako hilobietan ehorztea ahalbidetu baita, Hilotzen Sanitatearen Arautegiak ezarritako baldintzak beteta, betiere. Hala, bada, beharrezkotzat jotzen dute hilkutxa erabil dadin hilotzak garraiatu, ehortzi eta erraustean, osasun zioengatik, beste toki batzuetan gertatzen den bezala, hala nola Frantzian.
  - Azkenik, aditzera eman zuten Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak baduela proiektu bat hilotzen sanitatearen inguruko oinarritzko baldintza tekniko eta sanitarioak arautuko dituen errege dekretu berria ateratzeko, autonomia erkidegoen laguntzarekin, Estatu osoan era koordinatuan aplikatzekoa. Haien ustez, testuinguru horretan, islamiar komunitatearen kezkak aintzat hartu ahal izango dira, proposatzen diren aldaketen balioztapen teknikoa egin eta haiek, egokiak izanez gero, arau berrian sartuta.
4. Hiru foru diputazioen erantzunak jaso ditugu, eta, funtsean, bat datoz ezarrita dituzten sustapen politikak aipatzean. Politikok, hainbat foru planen bidez bideraturik, diru laguntzak xedatzen dituzte udalen eskumeneko zerbitzu publikoak emateko jarduerak finantzatzeko, besteak beste, halako azpiegiturek maila egokia izan dezaten erdieste aldera. Hiru foru diputazioen aburuz, sustapen neurri horien esparruan sor daiteke, hala badagokio, programaren bat udalerriek udal hilerrietan komunitate musulmanaren eskaerari erantzuteko guneak prestatu behar izanez gero.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da Arabako Foru Aldundia "Immigrazioari buruzko I. Foru Plana" taxutzen ari dela, eta plan horren xedea dela erakundeen aldetik beste ahalegin bat egitea "zerbitzu eta programak errealitate berriari egokitzea" lortzeko, beste helburu batzuen artean.

5. Bestalde, EAEko hiru hiriburu-udalen erantzuna ere jaso dugu.

a) Bilboko Udalak Hileta Zerbitzuetako zuzendari nagusiaren txosten bat igorri digu. Haren gogoetak adierazten ditu gomendio orokorraren inguruan, islamiar komunitatearekiko akordio baten bidez arazoa konpondurik dutela oinarri hartuta. Hona hemen gogoeta horien laburpena:

Hala, bada, aditzera ematen du gomendioetan jasotako gogoetak bat datozela udala islamiar komunitatearekin akordio batera heltzera eraman dutenekin, eta, lortutakoaren balio onentzat, azpimarratzen du bi alderdien onespena duen emaitza batekin iritsi dutela adostasuna.

Hala eta guztiz ere, ez datoz bat gomendioaren alderdi batekin, ondorio honekin, zehazki:

*"Edonola ere, badakigu musulman errituaren arabera lurperatzeak egiteko eskaerari udalez udal erantzuteko zailtasun handia dagoela. Egokiago deritzogu*





*bere biztanleriaren ezaugarri, kapitalitate edo udalaz kanpoko bere izaeragatik, zenbait udalerriek Autonomia Erkidegoaren eskaerari erantzun ordenatua eta planifikatua ematea, beste ekipamenduekin gertatzen den bezalaxe.*

Hileta Zerbitzuetako arduradunak uste du gomendioaren gogoeta hori eragiten duela, beharbada, konponbide erraz eta lasterra lortzeko nahiak; dena dela, inola ere ez dator bat horrekin, berak uste baitu, hilerriaren zerbitzua udal guztien betebeharra izaki, zerbitzu hori “beren kabuz edo taldeka” udalek eman beharko dutela, herritarrek aurkezten dituzten beharrizan aldakor eta askotarikoei erantzute aldera. Aurkakoa hilerrien arloa udalez gaindikoa dela pentsatzea litzateke, eta ez daude inondik inora ados horrekin.

Haren aburuz, era berean, ez dago ezin gaindituzko zailtasun teknikorik udal hilerrietan beste erritu batzuk sartzeko, gure hilerrietan erritu eta ohiturek (esaterako, errausketak) izan duten bilakaerak frogatzen duenez. Horrenbestez, udalerrian erritu bakoitzak dituen ordezkariekin adostasuna lortzearen bidea da arazoa konpontzeko modua, eta ez udal hilerri batek edo gutxi batzuek autonomia erkidego osorako konponbidea beren gain hartzea.

Desadostasun horretaz gain, haren ustez Arartekoaren gomendioetan badaude gogoeta egiteko moduko beste alderdi batzuk.

Hala, bada, aditzera ematen du, islamiar komunitatearekin izandako harremanen arabera, hilerri bereizia nahi dutela; azken batean, komunitatean identitate eta kokatze ezaugarri batzuk izatea bilatzen dute. Erlijioaren arabera bereizitako lekuak ezartzea ezin da inola ere bateratu sinesmenen bizikidetzaren aukerarekin; hain zuzen, azken aukera horri irizten zaio egokiagoa udal hilerriaren definizio zibilerako.

Laburbilduz, haien ustez ez litzateke hilerri baztertzailerik eman beharko funts publikoekin, bazterketa erlijio sinesmenetan oinarriturik. Hortik dator, orobat, lehen begiratuan agertzen den zailtasuna, udal guztiek beharrizan horri erantzuteko. Beste modu batera ehorztekoko gune batez edo batzuek ariko bagina, ez litzateke hain zaila konponbideak ematea, baina arazoaren funtsean badaude bestelako alderdi batzuk, eta haiek zailago egiten dute islamiar komunitateen eskariei irtenbideak emateko guneak bilatzea.

Hori dela eta, uste dute udalerriekiko akordioa (udal bakoitzarekin edo inguru bateko udalekin taldeka) dela erarik egokiena egoera horri erantzuteko. Izan ere, egoera hori testuinguru eta udalerririk bakoitzean desberdina izateaz gain, denboran zehar ere aldatzen da.

**b) Donostiako Udalak Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko kudeatzailearen txostena igorri digu.**

Aditzera eman digutenez, beren kabuz bilera izan zuten probintziako iman batzuekin, ehorzketa musulmanak egiteko lur sail baten hornidura ezartzeko





aukera aurkezte aldera (aldi baterako ehorzketak egiteko gune bat, Mekara begira). Ezetz esan zieten, itxuraz beharrezko masa kritikoa ez zegoelako eta erabat pribatua izango zen hilerri bat, musulmana, egin nahi zutelako, haien arauak izango zituen eta "betiko" esleituko zitzaiena.

Hornidura horren egiazko beharra txikia zen, azken hiru urtean zortzi kasu gertatu direlako; gehienetan aberriratzea aukeratu dute, eta hiru ehortzi ziren (bi karitatezko zerbitzuak izan ziren). Pentsatzen dute egoera horrek iraun egingo duela, harik eta hemen jaiotako belaunaldietara iristen den arte, bederen.

Adierazi zigutenez, hilotzen sanitateari buruzko arautegiez gain, hori nahitaez bete behar baita, udalaren hilerriei buruzko arautegietan deskontuak egongo lirarteke, duela urte askotatik lurrean ehorzketarik egiten ez delako, hormigoizko nitxoak hilotz batentzat edo gehiagorentzat erabilia.

Etorkizunerako aukerei dagokienez, aztertzen ari diren beharrizan berrien artean, ehorzketa musulmanak egiteko gune batez hornitzea dagoela esan digute. Bilboko Udalak hartutako konponbidearen antzeko zerbait aztertzeko prest daude, hau da, komunitate musulmanaren ordezkari legitimoen eta udalaren artean hitzarmen bat sinatzea, lur sail bat lagata kanon baten truke, 49 urteko epe baterako, luzatzeko aukerarekin, hala badagokio. Lurreko hilobiak egiteko baldintzak zehaztu beharko lirarteke, hori betetzea zaila baita gaur egun, batez ere hartzeko moduko ehorzketa kopurua baldintzatzen duen neurrian.

Azkenik, esan dute hornidura Donostiakoentzat murriztuta egotea edo lurralde historikoko guztientzat izatea eskariari erantzuteko egiazko ahalmenaren arabera erabakiko litzatekeela. Bertakoen eskariari erantzutea bermatuz gero baino ez litzateke pentsatuko eremu handiago bat hartzea. Ikusten duten beste aukera bat Logroñoko ereduari jarraitzea da, alegia, aldi baterako hilobiak izango dituen gune batez hornitzea, Mekara begira, indarrean diren epeetarako, salbuespeneko luzapena emateko konpromisoarekin eta hilerriak ezartzen dituen gainerako baldintzen azpian.

c) Bestalde, Gasteizko Udalak Ogasun eta Ekonomia Saileko zuzendariaren txostena igorri zigun, ondorengo oharrekin, laburbilduta:

Lehenik eta behin, aditzera ematen dute udalak azaroaren 10eko 16/1992 Legeak erlijio askatasunari buruz egindako garapena nola gauzatu aztertzen jardun duela. Lege horrek, hain zuzen, ehorzketa islamikoei dagokienez, Espainiako Estatuaren eta Espainiako Islamiar Batzordearen arteko Lankidetzako Hitzarmena berresten du.

Nolanahi ere, uste dute arazoak daudela erritu islamikoen arabarako ehorzketak udal hilerriko lurak erabiltzeko araubide juridikoarekin bateragarriak izateko, administrazio publikoen ondareari buruzko legediaren arabera. Bestalde, aditzera ematen du zaila dela ehorzketen inguruan dauden arau islamiko tradizionalak aplikagarria den tokiko eta sanitateko araudiari egokitzea. Era berean, agerian





jartzen du islamiar komunitate osoaren interesak ordezkatzeko dituzten solaskide batzuk aurkitzeko zailtasuna.

Laburbilduz, udala integrazio formulak bilatzen ari da, hilerriko zerbitzu publikoaren barruan erlijio bateko nahiz besteko ehorzte errituak egin ahal daitezkeen. Haien ustez, honako hauek dira beharrezkoak horretarako:

- Hilerriei buruzko tokiko araudia berraztertzea, hilerrien laikotasunari eta pertsona juridiko jakin batzuk, hala nola komunitate erlijiosoak, titulartzat onartzeari dagokienez.
- Erlijio bakoitzetik solaskide bakarra izendatzea.
- Hilerrian dagoen lurzoruak errealitate horietaz fisikoki eta juridikoki arduratzea ahalbidetzen duela ziurtatzea.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiaztatzea hilotzen sanitatari buruzko araudia ehorzketa erritu jakin batzuekin bateragarria dela.

- 6 Azkenik, EUDEL Udalen Elkartek adierazi zigun bere kideengandik ez zuela planteamendurik edo eskaerarik jaso arazo berezi honen inguruan.

Aurrekariak ikusita, ebazpena egitea erabaki dugu, ondorengoak kontuan harturik:

### Gogoetak

1. Lehenik, erritu musulmaneko ehorzketen arazoa konpontzeko modua ezagutze aldera egin genuen eskaerari erantzun dioten administrazioen interesa aipatu behar da, eta bereziki EAeko hiriburuetakako hiru udalek aurkeztutako gaiak dira aipatzekoak. Izan ere, gogoeta eta jardun horiek erreferentziazko esparrua izan daitezke arazoa mahai gainean baduten administrazioentzat edo lehenago edo geroago arazoari heldu beharko dioten haientzat.

Horregatik, interesgarria iruditu zaigu ebazpen honetan, laburbilduta, gure eskaerari erantzundako administrazioen planteamendua jasotzea, bai eta gutxieneko gogoeta batzuk ere.

2. Ikusi dugunez, oro har, oraindik ez da agertu zerbitzu horren premia beharrik. Gure gomendio orokorrean aditzera eman genuenez, horren arazoa izan daiteke, besteak beste, musulmanen kolektiboa oraindik gaztea izatea, gaur egun hilkortasun tasak eta populazioaren adinak duten lotura aintzat hartuta.

Hala ere, orduan ere aipatu genuen administrazio publikoek fenomeno hori kontuan izan beharko luketela, neurriak nahiko aurretiaz hartu ahal izateko. Ildo horretan, Gasteizko Udalaren kasua nabarmendu behar da; izan ere, arazoa 1998az geroztik planteatu den arren, erantzuteko idatzian aditzera eman





dutenez, oraindik ez dute konponbide bat aurkitu, sortzen zaizkien problema ugariak direla bide. Gure aburuz, problemak konpontzeko, ordea, eskari horri erantzuteko udal administrazioaren apustu irmoa behar da.

3. Bestalde, nabarmendu behar da hiru udalen erantzunetan aipatu dela —erritu musulmanaren arabera ehorzteko duten beharrizanak estaltzeaz gain— musulmanen komunitateak beren hilerria berentzat bakarrik edo udal hilerritik berezia izan dadin nahi izateak sor dezakeen zailtasuna. Azken batean, komunitatean identitate eta kokatze ezaugarri batzuk izatea bilatzen dute, eta, horri dagokionez, hilerri bereziaren aukera eta sinesmenen bizikidetzaren aukera elkarren aurka egon daitezke, esan denez; hain zuzen, azken aukera egokiagoa da beharrizan guztiei irekitako udal hilerriaren definizio zibilerako.

Dagoeneko gure gomendioan zabal azaldu genituen argudioekin, Konstituzioan aldarrikatutako kultu askatasunaren testuinguruan, beharrezkoa da ahaleginak bateratzea dauden errealitate berriez arduratzeko, eta, jakina, alderdien arteko adostasuna iruditzen zaigu aukerarik hoberena bai administrazioek bai komunitate musulmanak onar ditzaketen konponbideak aurkitzeko. Erliyoagatik bereizkeriarik ez egoteko printzipioa abiapuntu, gai honen inguruan dauden eskaerei eman beharreko erantzuna izan liteke, hilerriaren gainerakotik halabeharrez banandua —hots, "berezia"— dagoen zerbitzu bat eman gabe, kolektibo horren beharrizanak asetzen dituen toki edo gune bat eskaintzea.

Nolanahi ere, gai honetan akordioak erdieste aldera, ahaleginak eta borondateak bateratzeak duen garrantzia nabarmentzen dugu.

4. Eskaerari udalez gaindiko ekipamenduekin erantzuteko aukerei dagokienez, esan behar dugu egia dela hilerria udalerrri guztiek eman beharreko oinarrizko zerbitzu bat dela, baina, beste zerbitzu batzuei —hala nola hondakinak ezabatzeari eta ura arazteari— konponbidea partzuergo eta mankomunitateen bidez, zentzu zabalean, eman zaien bezala, arazo honetan ere zerbitzua praktikan ematea erraztuko duten aukerak har daitezkeela.

Jakina, gomendioaren planteamenduan ez zegoen batere asmorik udal eskumenak aldatzeko, gaia aurrerantzean udalez gaindikoa izateari dagokionez, baina onartu behar dugu testuan horri buruz esandakoetatik batzuk zehaztu egin behar direla. Hala, bada, ez litzateke arrazoizkoa udal batzuei beren biztanleen ezaugarriengatik, hiriburu izateagatik eta/edo udalez gaindiko izaera izateagatik, autonomia erkidegoko eskari osoaz arduratzeko betebeharra ematea, baina komeniko litzateke hainbat mailatako administrazioen artean adostutako aukerak bultzatzea, praktikan eskari horri kasu ahal egiteko, ordenamendu juridikoak ahalbidetzen dituen formulak baliaturik.

5. Azkenik, erritu musulmanaren arabeko ehorzketei dagozkien arau esparruaren inguruko gogoeta batzuk.





Horri dagokionez, aipatu behar da interesgarria litzatekeela hilotzen sanitatearen gainean aurreikusten den araudi orokor berrian —Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aditzera eman duenaren arabera— erritu musulmanaren araberako ehorzketak aintzat har ditzaten eta, hala badagokio, araudi barruan sar ditzaten.

Bestalde, udalen eremuan, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea administrazio publikoen ondarea arautzen duen araudia ez dela ezin gaindituzko oztopoa eta erritu musulmanaren araberako ehorzketek behar dituzten konponbideak ahalbidetzeko formula batzuk onartzen dituela.

Jabari publikoa lagatzearen behin-behinekotasunaren berezko ezaugarriarekin zegoen kontraesana gainditzeko, doktrina eta jurisprudentiaren adostasun handiarekin, “hileta eskubide”aren teoria deitutakoa eratu den bezala, arazo hau konpontzeko moduko proposamenak adostu ahal izango dira.

Dagoeneko eskaria egiaztaturik eta konpondu gabe duten udalek apustu irmoa egin behar dute beren arautegi eta ordenantzetan beharrezko aldaketak bultzatzeko, ekipamenduetan bertan egin beharreko aldaketez gain, eskaerei erantzun ahal izateko.

Aurreko ataletan azaldutako gogoetak aintzat harturik, honako hauek jakinarazten dizkizugu:

### Ondorioak

Administrazio publikoek eta, batez ere, udalek —hilerri zerbitzuaren ardura dute eta— ahaleginak eta borondateak erabakitasunez batera ditzatela, beren artean nahiz komunitate musulmanarekin akordioak lortze aldera erritu musulmanaren araberako ehorzketak ahalbidetzeko behar diren erabakiak hartzean.

